

30^{nº}
zbk



Beasaingo
Udala

Beasaindik

OCTUBRE 2018 URRIA

Udal Aldizkaria Revista municipal

LAN AUKERA BERRIAK FORMAZIOARI ESKER

El Plan de Empleo sigue proporcionando nuevas oportunidades laborales a las y los beasaindarras



GUTUNA

Malu Vallés

Gizarte
zerbitzuetako
zinegotzia



Heritarren ongizatea bermatu eta hobetzea: horixe gure erronkarik eta egitekorik nagusia, ez esatearren bakarra. Hori lortzeko, baina, udaletik eskainitako zerbitzuak hobetzen, egonkortzen eta ezagutzera ematen dihardugu lehen egunetik.

Legealdiaren hasieran ongizate sailaren diagnostia egin genuen sailaren beharrak zein ziren eta hobetzeko zein aukera genituen ezagutzeko eta azterketa hori oinarri hartuta zenbait neurri hartu ditugu: informazio saiokak eta bisitak antolatu ditugu programak eta diru-laguntzak ezagutzera emateko eta saila bera egonkortu dugu.

Halaber, heritarren ongizatea oinarri hartuta hainbat eta hainbat ekimen abiarazi ditugu ongizate sailatik eta baita gainerako sail guztietatik ere, pertsona, heritarra, ZU, zarelako gure ardatza eta lehenasuna. Horregatik, gure proiektu eta egitasmo guztiek pertsona dute erdigunean eta guztiek dute helburu beasaindaren ongizatea, bizi kalitatea eta egunerokotasuna hobetzea.

Ongizateari lotuta beraz, hamaika egitasmo, proiektu eta obra gauzatu ditugu: igogailuak, haur-jolastokiak, oinezkoentzako gunek, adineko pertsoneri lotutako Beasain Lagunkoia, Ondo ibili ondo izan, Goiz Zaindu eta Goiz Alzheimer ekimenak, kirola egiteko sortutako

PERTSONAK ETA BEREN ONGIZATEA

gunek berriak, kiroldegiko inbertsioak, kultura indartu eta aukera berriak eskaintzeko Igartza Musika Programa... eta nola ez, enplegua sustatzeko martxan jarritako ekimen guztiak, azken batean, lana delako pertsona ororen ongizatearen bermerik nagusia.


Trabajar desde la cercanía

Creo que saber a quién dirigirte en caso de necesitar ayuda es imprescindible y más si estamos hablando de bienestar social. Por ello, hemos reforzado el departamento y realizado sesiones informativas y visitas para dar a conocer los programas y las ayudas que se ofrecen y acercarnos a la población.

Asimismo, desde todos los departamentos hemos puesto en marcha múltiples iniciativas con el objetivo de mejorar la calidad de vida de las personas, porque cada obra, cada proyecto y cada acción realizada busca alcanzar ese objetivo. Son ejemplo de ello: los ascensores, la mejora de los parques infantiles, Beasain Lagunkoia, Goiz Zaindu y Goiz Alzheimer... o todas las iniciativas para promover el empleo, porque entendemos que el empleo es sinónimo de bienestar y por ello, ofrecer nuevas oportunidades a la ciudadanía en este ámbito es nuestra prioridad.

CREACIÓN DE NUEVOS PUESTOS DE TRABAJO EN ARANGOITI GRACIAS A LA CONCERTACIÓN DE 16 NUEVAS PLAZAS

Ya están siendo ocupadas las 16 nuevas plazas que ha concertado la Diputación en Arangoiti para mejorar la atención a las personas de edad. La concertación ha generado, a su vez, nuevos puestos de trabajo en la residencia: 6 en personal auxiliar y 2 en personal de la limpieza.



16 plaza berri hitzartu ditu Foru Aldundiak Arangoitin
Lanpostu berriak sortu dira: 6 erizaintzako laguntzaile eta 2 garbitzaile

GIZARTE ONGIZATE SAILA EGONKORTUZ

Legealdi hasieran Gizarte Ongizate Sailari buruzko diagnostika egin zen herritarrei eskainitako zerbitzua nola hobetu aztertzeko. Ondorioak kontuan izanik neurri ezberdinak hartu dira:

- **Zerbitzuak ezagutzera emateko eta herritarrei hurbiltzeko:**

Informazio gutuna bidali, bilerak antolatu eta bisitak egin ziren herritarrek zerbitzuak bertatik bertara ezagutu zitzaizkien.

- **Zerbitzua hobetzeko eta saila egonkortzeko:**

Ongizate saileko bi teknikarien lanpostuak egonkortu dira herritarrenganako zerbitzua hobetzeko. Modu honetara, herritarrek jada ezagunak dituzten pertsonengana jo ahal izango dute eta teknikariek esku artean dituzten kasuen jarraipen zehatzagoa egin.

Bestalde, ongizate sailak hainbat egitasmo abiarazi ditu eta berriak ere jarriko dira martxan pertsonen ongizate eta bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin:



Programas para la **prevención** y **detección temprana** del Alzheimer.

110 personas ya se han inscrito para participar en el programa Goiz Zaindu.

Actividades para promover el **envejecimiento activo**: máquinas para la práctica deportiva, Ondo ibili ondo izan, Consultorio deportivo...



Servicio de orientación dirigido a familias.

Programas para la **prevención** del consumo de drogas y alcohol.



Programa **Beasain Lagunkoia** para adecuar el municipio a las necesidades de las personas mayores.

PLAZA AZPIKO AKUSTIKA HOBETU DA EREMUARI ERABILERA BERRIAK EMAN AHAL IZATEKO



Oihartzun handiko eremua izan da orain artean Loinazko San Martin plaza azpia. Hori dela eta, erabilera ere mugatua egon da. Espazio publikoen hobetze lanekin jarraituta, soinu-ztapen baldintzak betetzeko material berezia ezarri da sabai eta habeetan. Horrela espazioari erabilera berriak emateko aukera izango da eta froga baten bitartez bertan kontzertuak eta ikuskizunak antolatu ahal izateko aukera ere aztertuko da.

“Se ha mejorado la acústica de la plaza de abajo y ello permitirá darle otros usos a dicho espacio como por ejemplo con conciertos, actuaciones...”

Izan "Ahobizi" edo "Belarriprest"



Beasaingo Udala duela urtebete hasi zen Euskaraldia prestatzen. Ekimen honek helburu du 11 egunez euskaraz aritzea. Parte hartzeko izena eman behar da azaroaren 23a bitartean. Izen-ematea: www.euskaraldia.eus. Anima zaitez!

El Ayuntamiento lleva más de un año trabajando en el Euskaraldia, por ello, animan a las y los beasaindarras a participar e inscribirse en esta iniciativa que tiene como objeto cambiar los hábitos lingüísticos y lograr que la ciudadanía se relacione en euskera durante 11 días.

Euskal Herriko Sagardo Txapelketaren lehen finalaurrekoa Beasainen

Jendetza inguratu zen IV. edizioko lehen finalaurrekora. Gernika pasealekuan egindako bazkari herrikoian beasaindarrek 18 herri ezberdinetako 41 sagardotegitako sagardoak dastatu eta epaile lanak egin zituzten.

Por primera vez Beasain ha acogido la primera eliminatoria del IV Concurso sidrero de Euskal Herria organizado por la Asociación de Sidra Natural de Gipuzkoa. Han participado 41 sidrerías de 18 municipios y las y los beasaindarras pudieron catar y puntuar las sidras del concurso.



Las huertas sociales cumplen un año



Izaera soziala duen baratze parkeak urtebete darama martxan eta denbora honetan, Udalak Caritasen eskura jarritako baratze sozialetan 20 pertsona ibili dira baratze-zaintza tailerrean okupazio lanetan.

60 son las parcelas situadas en frente de Estanda, de las cuales 18 son ocupacionales y están reservadas para personas con necesidades especiales, de ahí el carácter social del parque de huertas de Beasain que en octubre cumple un año.

Berdintasuna ehunduz

Irailaren 19an abiarazi zen Hari Matazak egitasmoa Beasainen. Bi astez behin partaideak udaletxeko bilera gelan elkartzen dira indarkeria sexistaren aurka metro ugariko artelana haritzeko. Batu zu ere egitasmora!

La iniciativa Madejas contra la violencia sexista promovida por Asmube y el Ayuntamiento busca visibilizar y prevenir la violencia sexista y para ello, se han convocado talleres cada dos semanas de 18:00 a 20:00 en la sala de reuniones del Ayuntamiento para tejer madejas. ¡Súmate tú también a este proyecto!



Celebración del día de las personas mayores de Beasain

65 urtetik gorako beasaindarrek jan-edanean ospatu zuten beren eguna Lierniko Mujika jatetxean. Aurten Maria Piris eta Martin Mendizabal izan ziren omenduak.

Como cada año, Aranealde organizó una comida para todas las personas mayores de 65 años de Beasain en la que también participaron el alcalde y la concejala de bienestar social. Maria Piris y Martin Mendizabal fueron los homenajeados de este año. Zorionak bieil!



I. Goierriko Xake Jaialdia



Beasaingo Alfil elkarteak lehen Goierriko Xake Lehiaketa antolatu du eskualdeko 3 herritan 12 urte arteko haurrentzat. Guztira, beraz, 3 jardunaldi egin dira.

Por primera vez se ha celebrado el I. Campeonato de Xake de Goierri organizado por la Asociación Alfil de Beasain. En total se han llevado a cabo 3 jornadas, una de ellas en Beasain el 29 de septiembre, y han participado niñas y niños de diferentes municipios.

Bizikleta martxa, mugikortasun jasangarriaren alde

Mugikortasunaren Europako Astearen baitan, Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailako ikasleek eta udal ordezkariak mugikortasun jasangarriaren alde egin zuten bizikleta martxan parte hartuz. Udaletxeko plazatik abiatu ziren eta amaitzean hamaiketakoaz gozatu zuten partaide guztiek.

Dentro de la Semana Europea de la Movilidad estudiantes de 5º y 6º de primaria y representantes municipales participaron en la marcha en bicicleta a favor de la movilidad sostenible. Partieron desde la plaza del Ayuntamiento y al finalizar el recorrido todas y todos pudieron disfrutar de un buen almuerzo.



Agorta, Igartza-Loinatz y Arana Bideluze celebran sus fiestas

Igartzako Dantzarien Kofradiak bere eguna ospatu zuen Igartzako zubian, Dolarea aurrean eta burdinolaren barrenean dantza eginez. Ekitaldi berean, Jesus Mari Garate Mujika dantzari eta dantza maisu goierritarra omendu zuten.

Los dantzaris de la Cofradía de Igartza aprovecharon su día para brindar homenaje y recordar al gran maestro y dantzari goierritarra Jesus Mari Garate Mujika fallecido este mismo año.



FORMAZIOA INGURUKO ENPRESEN BEHARRETARA EGOKITUZ

El Ayuntamiento de Beasain sigue promoviendo proyectos que ayuden a las personas desempleadas a integrarse en el mundo laboral, entendiendo que el empleo dignifica a la persona y es pieza clave de su bienestar y desarrollo.

Así pues, por tercer año consecutivo, dentro del PLAN DE EMPLEO y en colaboración con Goierri Eskola se ofrecerán cursos de formación y prácticas en empresas para aumentar las oportunidades de empleo de las personas desempleadas de Beasain.



Goierri

Enplegua sortzea eta herriko langabetuei lan aukera berriak eskaintzea lehentasunezko gaia da tokiko gobernuarentzat lanak pertsona duintzen duelako eta ongizatearen berme nagusia delako. Hori dela eta, beasaindar

langabetuen profilak kontuan hartuz udaletik hainbat egitasmu abiarazi dira azken urteotan.

Ikasketak dituzten langabetuentzat, hirugarrenez, Beasaingo Udalak, ENPLEGU PLANAREN baitan eta Goierri Eskolarekin elkarlanean formazio ikastaroak eskainiko ditu herritarren lan aukerak areagotzeko.

Ikastaroak tokiko enpresen eta lan merkatuaren beharretara eta eskakizunetara egokitzen dira formazioa jasotzen duten beasaindarren laneratze aukerak sustatzeko. Aurten adibidez, Mekatronikari buruzko ikastaroa jasoko dute partaideek eta amaitzean inguruko enpresetan praktikak egingo dituzte.



IÑAKI ZABALO SAN SEBASTIAN

Goierriko Herrien Ekintza fundazioko zuzendari nagusia

“Por medio del servicio de empleo de la fundación adecuamos los cursos a la demanda de las empresas y las necesidades de las personas desempleadas, pero la inserción laboral depende en gran medida de la respuesta y actitud de las y los alumnos participantes”

Nola atzematen dituzue eskualdeko enpresen beharrak? Eta nola egokitzen dituzue ikastaroak behar horietara?

Goierri Fundazioko enplegu zerbitzuaren bitartez. Ikastaroak egokitzeko, kontuan hartzen ditugu beharrezkoak diren baldintzak, enpresen eskaerak eta pertsonak, kasu honetan langabetuak.

Ezagutza hori izateak laneratze aukerak areagotzen ditu?

Bai noski, ezagutzarekin aukerak sortzen dira. Formazio honekin pertsonen lan aukerak bermatzea beste gauza bat da. Izan ere, garrantzitsua da ikasle bakoitzak emango duen erantzuna laneratze aukerak areagotzeko.


Zure aburuz, etorkizunera begira zein behar izango da nagusi Goierriko enpresetan?

Zaila da erantzuna, uste dut, kualifikatuta dauden profilen beharrak areagotuko direla. Eta gainera, etorriko diren aldatetei aurre egiteko, gaitasun teknikoak eta zeharkakoak beharrezkoak izango direla, modu azkar batean egokitzeko.



IÑAKI MUJICA SUESKUN | JESUS MARI DE LA CRUZ

Enplegu planaren baitan formazioa jaso duten beasaindarrak



Jesus Mari de la Cruz

“Lanik gabe geratzean formazio ikastaro haketan parte hartzeko aukera izan nuen eta horri esker, nire ezagutza zabaldu dut. Ez dut ikasitako esparru horretan laneratzeko aukerarik izan, baina egun Galdarategi batean nago eta ziurrenik ez nintzateke bertan lanean izango jaso dudan formazioa jaso izan ez banu”

Que ha supuesto para ti ser una de las personas beneficiarias del plan de empleo?

Cuando cerró la empresa en la que trabajaba, me encontré con la duda de empezar a buscar empleo directamente o realizar algún curso o cursos de formación que me ayudasen a encontrar una salida laboral. En ese momento estaban seleccionando candidatos para el curso de ensayos no destructivos y producción en construcciones metálicas, me parecía interesante y me apunté siendo seleccionado. El curso resultó muy interesante y duro al mismo tiempo, aportándome unos conocimientos sobre el mundo de la soldadura y los ensayos no destructivos sobre los que no conocía nada anteriormente. También ha sido importante el seguimiento por parte del centro colaborador de Lanbide sobre mi situación laboral y la inclusión de mi candidatura en ofertas que pudieran encajar con la formación recibida.

¿La formación recibida te ha ayudado a reintegrarte en el ámbito laboral?

En relación a los ensayos no destructivos no ha habido posibilidad de incorporarme en ese ámbito. Actualmente trabajo en una calderería en tareas de apoyo a producción y calidad, trabajo que casi con toda seguridad no hubiese accedido a él sin haber realizado el curso de construcciones metálicas.

¿Alguna recomendación o consejo para los nuevos participantes?

Nada en especial, que se lo tomen con ganas y con seriedad.

Zer izan da zuretzat Enplegu Planaren baitan eskaintzen diren ikastaroetan parte hartzea?

Izugarrizko aukera izan da lan merkatura itzultzeko. Ikasketetan birziklatzeko eta kurrikuluma handitzeko ere balio izan dit. Orokorrean oso pozik nago kurtsoarekin.

Jasotako formazioak laneratzeko prozesuan lagundu al dizu?

Bai. Enplegu Planaren barruan egindako eskaintza honi esker, orain lanean nago Goierriko lantegi batean.

Gomendio edo aholkurik partaide berriei?

Ikastaro hauek zorrotzak dira, baina gogoz hartzen baduzu emaitzak iristen dira.



Iñaki Mujica

“Poder participar en estos cursos de formación ha sido una gran oportunidad para mí; gracias a la formación recibida hoy día estoy trabajando en una fábrica de Goierri. Estoy muy contento.”

UDAZKEN KULTURALA

klik batean en un click



Kontsultatu nonahi herriko agenda

JARRAI GUTZAZU BEASAIN APP


www.beasain.eus

DATUEKIN JOLASEAN

Langabezia tasaren azken urteotako eboluzioa

Evolución de la tasa del paro en estos últimos años

Urtea Año	Pertsona kopurua Nº de personas
2015	698
2016	621
2017	561
2018	556



Langabetu kopurua Nº de personas paradas

JAKINARAZPENAK NOTIFICACIONES

EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL 2018

ZERGAK ETA TASAK IMPUESTOS Y TASAS	Kobrantza epea Periodo de cobro
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera Entrada de vehículos en fincas urbanas	2018.09.01 - 2018.10.31
Garaje sarrera Entrada a garajes	2018.09.01 - 2018.10.31
Zabor-bilketa 2. seiñilekoa Recogida basuras 2º semestre	2018.09.01 - 2018.10.31

DIRU-LAGUNTZAK SUBVENCIONES

Euskara ikasleentzako HABEren diru-laguntzak

Subvenciones de HABE para estudiantes de euskara

Eskaerak urriaren 11 bitartean egin daitezke

Las solicitudes deben realizarse antes del 11 de octubre



UDAL EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

CONCURSO FOTOGRÁFICO PARA EL CALENDARIO MUNICIPAL



Gai: BEASINGO NATUR ONDAREA ETA INGURUNEA

Tema: ENTORNO Y PATRIMONIO NATURAL DE BEASAIN

www.beasain.eus/argazki-lehiaketa
www.beasain.eus/es/concurso-fotografico

LOTURAK ENLACES



• Antzizar kiroldegia
www.antzizar.net



• Udal Euskaltegia
www.beasain.eus/euskaltegia



• KzGunea
www.kzgunea.eus



• Igartzako Monumentu Maltzoa
www.igartza.eus



• Musika Eskola
www.beasaingomusikaeskola.eus



www.beasain.eus



Beasaino Udala

Lege gordailua SS 403-2016